

Arrasate

R E S S U

1998ko
Uztailak 10
415. zenit.

IKUSPEGIA

AMAIA JAUREGI-ARRABURU

KULTURA

MARKELIÑE


ORAIN ETA HEMEN

AUZOLANDEGIAK

KIROLAK


JUAN MANUEL MARTIN

**Alzheimer:
senideak elkarlanean**



Aldi//bi

KRISTOBAL DEUNA 1998 *Zorionak gidari guztioi!!*



VOLVO



mazda



GALLOPER



HYUNDAI



**MITSUBISHI
MOTORS**

Aldibi autoak, S.A.

Izar autoak, S.L.

Auto Suecia

Muskola autoak, S.L.

Aldikar autoak, S.L.

Co-Car, S.L.

Muskola autoak, S.L.

Aldikar autoak

Telefonoa

Lehenengo herri edo auzo osorako telefono bakar bat zegoen. Zentralita bat, hobeto esan. Herriarrek edo auzotarrek deitu nahi baldin bazuten, hara joan eta deitzen zuten, eta aldi berean kanpoko deiak ere han jasotzen ziren. Benetan behar zenean erabiltzen zen, noski.

Er zen denbora luze igarotxe askotan telefonoa ipini zen arte. Orduan nork berea ez bazuen ere, auzokoren edo gertukoren batena erabiltzen zuten, beti ere beharrezko zerbait zenean.

Handik gutxira etxe guztietan jarri zen telefonoa. Gaur egun arraroa da telefonorik gabeko etxea. Are gehiago, etxe askotan bat baino gehia-



Amaia Jauregi-Arraburu

go dago, fijoia eta mugikor horietakoa. Bakoitzak geurea daukagunez, nahi dugunean erabiltzen dugu, eta etxean ez bagaude ere, erantzungailu automatiko horietako bat ipini eta badakizue: "... seinalea entzun ondoren utzi zure mezua. Pipipipii". Modu horretan edozein ordutan eta edozeini dei diezaiokegu, ezagun edo ezezagun, gertukoa zein urrutikoa. Lagun arteko harremanak ere zuzenean izan beharrean, sarri askotan tresna honen bidez izatera mugatu dira.

Hau guztia gutxi balitz, eta aurrerapenak aurrera egiten duenez, gaur egun gero eta arruntago egiten zaigu edozein bazterretan norbait telefono txiki mugikor horietako bat belarri ondoan ipini eta

barriketan ikustea: kalean eskuak mugituz bakarrik hitzegiten ari balitz bezala, edo jatetxean zaudela aldemeneko mahaian txirrin ezagun baten hotsa entzutea. Nori ez zaio gertatu norbaitekin hitzegiten ari dela tresna txiki hori jotzen hasi eta norbera hitza ahoan duela utziz "mugikor"arekin hizketan hasten dela ikustea? Hori ez aipatzearen autoa gidatzen ari direlarik, bolantea esku batekin heldu eta bestearekin tresna hori belarri ondoan eutsiz hitz jario batean doazenak.

Beste hainbat kasutan legez, beldur naiz oraingo honetan ere komunikazio arloko aurrerapen teknikoak komunikatzeko baino aurkakoa lortzeko ez ote ditugun erabiltzen, hau da, lagunene arteko harremanak bultzatzeko baino harremanak eurak ordezkatzeko erabiltzen ez ote dugun edo komunikazioa elkarrizketa hutsera ez ote dugun mugatzen. Izan ere, aurrerapen tekniko guztiak soberan daude gero erabilera atzerakoia ematen badiegu. ■

"Komunikatzeko ala kontrakoa lortzeko erabiltzen dugu?"

"Negozio berriak izan bagenitu, sortzeko dugun baino ahalmen handiagoa, seguruenik enplegu gehiago sortuko genuen kooperatibetan"

Jose Migel Arregi

214

ikasle pasatu dira Lantegi Eskolatik

1988an sortu zenetik, 214 ikasle ikasi dute Lantegi Eskolako ikasgeletan. Horietatik 140k lana aurkitu dute. Ikasketen %40 teorikoak izan dituzte. Gainerakoa praktikoak, jakintza arlo hauetan: igeltsaritza, iturgintza, elektrizitatea, zurgintza eta jantzigintza.

ITURRI ONETIK

Babesle publikoa ala pribatua?

Arrasateko Udalak aspaldi azaldu zuen Lezetxikiko kobaren inguruak txukuntzeko asmoa. Lehenengo eta behin Eusko Jaurlaritzara jo zuen, laguntza bila. Ezetz.

Orduan Alvaro Arrizabalagarekin egin zuten topo, Aranzadi elkarteko zientzilaria oñatiarrarekin. Honek Lezetxiki inguruak garbitzea oso inportantea zela adierazi zien, duen esanahiagatik eta oraindik ere indusketak egiten ari direlako. Beraz, Kutxa Fundazioa jotzeko esan zien, haiek laguntzeko prest egon zitezkeela eta.

Kutxak baiezkota eman zuenean, Eusko Jaurlaritzak deitu zuen, eurak ere prest leudekela laguntzeko. Noiz ezer ez, noiz gehiegi.



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK
ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñalora Kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 77 05 65. Faxa: 943 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readysoft.es
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Marian Porcel, Naiara Gorroño. **Publizitateak:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo, Arantza Lagunilla. (Tel.: 943 77 08 15). **Administrazioa:** Argutzane Gaintzarain (Tel.: 943 79 02 26) **Diselnuak:** Txos Azurmendi. **Asteburuetako berriemakileak:** Lierni Urbarren. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Itxaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Aguirreureta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobenoaga, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Sailla, ASA taldea, Eneko Allende, Besalde M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larnaigaga, Matilde Salin, Iker Barandiaran, Xavier Letona, Karmele Perez, Kopi, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barrena. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). **©ARRASATE PRESS. Tirada:** 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanene eta intzieren erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Ignacio Perez.



Arrasateko Udaleraren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailearen laguntza

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala, 10**
 • Egunez: Azkoaga, Ferrerías
 • Gaeuz: Mozos, Bergara
- Larunbata, 11**
 • Egunez: Español, Iturriotz
 • Gaeuz: Camacho, Bergara
- Igandea, 12**
 • Egunez: Korkuera, Musakola
 • Gaeuz: Camacho, Bergara
- Astelehena, 13**
 • Egunez: Irizar, Eguin
 • Gaeuz: Puy, Bergara
- Asteartea, 14**
 • Egunez: Amezua, Santa Marina
 • Gaeuz: Guallar, Bergara
- Azteazkena, 15**
 • Egunez: Zabala, Zarugalde
 • Gaeuz: Estella, Bergara
- Osteguna, 16**
 • Gaeuz: Ruiz, Maala.

BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 79 53 00
 Iguatorialdea 943 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 943 79 39 00
 (emakumeak) 943 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11
- Gurutzegoria**
 Bergara 943 76 55 76
- DYA**
 Antzuola 943 78 71 57
- Anbulatorioak**
 Arrasate (Larrialdiak) ... 943 79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria 943 77 03 46
 • Espezialitateak 943 77 05 78
 943 77 12 64
 Oñati 943 78 08 52
 Eskoriatza 943 79 98 58
 Aretxabaleta 943 79 74 58
 Aramaio (945) 943 45 51 16
- Anbulantziak**
 Gipuzkoako ambulanziazki 943 45 87 44
- Udaltzaingoa**
 Oñati 943 78 04 11
 Bergara 943 76 14 69
 Arrasate 943 79 14 39
 Aretxabaleta 943 79 10 52
 Eskoriatza 088
- Ertzaintza**
 Arrasate 943 79 71 99
- Suhiltzaileak**
 Udal taldea 943 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088
- Matxurak**
 Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00
 Argindarra (Iberduero) ... 943 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 943 79 78 44
 943 79 76 78
- Garraioak**
 Taxiak 943 79 12 22
 PESA 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**
 Iturbide Egoitza 943 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57
- Kontsumitzailearentzako informazioa**
 KIUB-OMIC 943 79 51 55
- Monterron liburutegia**
 Monterron 943 77 01 05
- Irratia**
 Arrasate Irratia 943 79 58 77

ENERGIA EOLIKOA BERRIRO MINTZAGAI

Arrasate Presseko 410. zenbakian (ekainak 5) agerturiko zenbait daturen inguruko gogoeta egin nahi nuke: Vicente Alonso jaunak zera adierazten du aipatu zenbakian: "energia eolikoak orduko sortzen duen Kw. bakoitzak, Kw. hori zentral termiko batean ekoiztea ekiditen du". Nire aldetik zera adierazi nahi dut: Iberdrolaren plangintza eolikoak ez ditu gainontzeko energia motak ordezkatuko; energia nuklearra, gas naturala eta energia eolikoa politika energetikorentzat zutabe nagusiak baitira. Aitzitik, gisa honetako plangintza eolikoa lotuta dago Bizkaian bultzatu nahi diren makro-proiektuekin (bergasifikazio planta, zentral termiko berriak, e.a.).

Zentral termiko hauen aerosorgailuen ekoizpen elektrikoa bere etekin gorenen 2.350 ordukoa izan daitekeela aurreikusten da; aerosorgailu hauek, bada, 3 hilabeteri dagokien ordu kopurua ekoiztuko dute ahalmen mailarik gorenean. Gainontzeko bederlatzi hilabeteetan ez dute inolako etekinik sortuko edo oso etekin urriak. Ondorioz, hornikuntza ziurtatzeko zentral termikoen euskarria beharko du (haizeak 4,5 metro/sg. edo orduko 16 km. gaintzen duenean hasten da aerosorgailuaren ekoizpena, baina 16 metro/segunduko edo orduko 57,6 km. ko indarra behar du ekoizpen maila gorenera iristeko).

Honela, zentral eolikoek ez dituzte zentral termikoak ordezkatuko. Halaber, ez du energia nuklearrik ordezkatuko.

Nahiz eta gaur egungo energia termikoaren ekoizpen gaitasunak energia eskariak asetu, energiaren %34 nuklearra da. Beraz, energia eoli-

koak ez du inolako energia kutsakorrik ordezkatuko.

Honela bada, zein da zentral eoliko hauen bideragarritasuna?

Oskar Loiti.

Arrasateko AHTren aurkako asanbladako partaidea

Gutunen araudia

Erredakziora iristen diren gutu-
 netan ematen diren iritziak balio handiagoa izan dezaten eta arazorik sor ez dadin, araudi berria ezarri dugu gutunen sailean.

Edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira nahi eta nahiez:

- Egilearen izenaz argitaratuko ditugu. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde-izena onartuko da.
- Gehienez jota, 30 lerroko gutunak onartuko dira. Hortik gorakorik balego, erredakzioak laburtzeko eskubidea

du. Aurrez egilearekin harremanetan jartzen saiatuko gara.

• Anonimo, gaitzizenez edo inisialez datozenak ez dira argitaratuko.

• Ez da lekurik gordeko. Erredakziora ailegatutako ordenean kaleratuko dira gutun guztiak.

• Gutun iraingarrik ez da argitaratuko.

• Egilea bera dela egiaztatzeko, gutuna ekarri edo bidaltzen duenak berarekin harremanetan jartzeko modua adierazi beharko du. Telefono zenbakia nahikoa da.

ATBn eta Arrasate Irratian udako programazioa

Uztaila denboraldi berria prestatzeko izaten da Arrasate Telebistan eta Arrasate Irratian. Urtean zehar dauden saioak amaitu, eta buru belarri dabilta dagoeneko bi etxeetan urri aurretik iritsiko diren saio berriak

prestatzen. Horregatik ATBn albistegiak besterik ez daude dagoeneko. Irratian ere oporrak hartu dituzte. Baina abuztu ostean, ez ahaztu 107.7an berriz aurkituko dituzuela zuen lagunak.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
 Tel.: 943 79 81 82

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
 Tel: 943 79 76 58
 ARRASATE

M

MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Zer dakizu Alzheimerri buruz?

Arrasaten talde bat dago Alzheimerrek jotako gaixoen familiartekoak biltzen dituen.



Aitor Elorza
(13 urte)
Ikaslea

Gaixotasun bat dela. Poli-ki-poliki gauzak ahazten zoaz eta horrela hil arte. Ez dut inor ezagutzen.



Mari Jose Alvarez
(46 urte)
etxeakoandrea

Hezurrak eta, makaltzen doazkizula. Hori uste dut dela. Dena den, ez dut inor ezagutzen hori duenik.



Amaia Perez de Albeniz
(30 urte)
administratiboa

Gaixotasun degeneratiboa dela. Nire aitona Alzheimerrek jota hil zen orain lau urte. Gogorra da.



Jesus Etxebarria
(55 urte)
gidaria

Zer duk hori? Gaixotasunen bat izan daitekeela bai, baina bestela ezer ere ez.



Carlos Miguel
(39 urte)
merkataria

Gaixotasun bat dela, nerbio sistema hondatzen duena. Ez dut inor ezagutzen.




Dorleta Sajeras
(18 urte)
ikaslea

Gutxi. Badakit gaixotasun bat dela, baina ezer gutxi gehiago. Ez dut inor ezagutzen.




Itziar Larrañaga
(18 urte)
ikaslea

Oso gutxi. Jende asko hiltzen dela. Poli-ki-poliki gauzak ahaztuz zoazela. Nire aitaren izeba bat hil zen horrela.



Enrique Sanchez
(46 urte)
merkataria

Oroimena galarazten dizun gaixotasun degeneratiboa. Nire amonak bazuen. Esan liteke haurtzarora itzultzen zarela.



**LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE**

Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37 - behea
Tel.: 943 79 79 46 • ARRASATE

**Plus Ultra
taberna**

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 943 79 20 57

**ZUBIZARRETA
LANTEGIAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

Arrasate

LANAK

OBENERREKAN

Jolastokia berrizteko lanak.

TAKOLON


Biribil berria egiten ari dira.

AZATZA ETXEETAN

Monterron eta Musakola lotuko dituen pasealekua egiteko lanak.

ARRASATE PASEALEKUAN

Konponketak direla eta, bidea moztuta dago. Ibilgailuak gaztelurantz desbideratuko dira.



Biztanleak: 24.257
Eremua: 33 Km²
Garaiera: 211 metro

Eguraldiaren aurreikuspena



OSTIRALA 10

Lainoak desagertzen joango dira eta tenperatura igo egingo da. Haizeak Iparraldetik joko du.



LARUNBATA 11

Lainotua. Tarteka euria egin dezake. Tenperatura beherantza joango da. Haizeak Iparraldetik joko du.



IGANDEA 12

Laino gutxi eta goizaldean behelaino nagusi. Tenperatura igo egingo da eta haizeak mendebaldetik joko du.

Ilargia



ilbehera

Ostegunean, uztailak 16, ilbehera izango da.

Mezak

Parrokia

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean:

09:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz).
12:30 (elebiduna)

San Frantzisko

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean:

09:00 (euskaraz)
10:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz).
12:30 (erdaraz)
19:00 (elebiduna)

Uribari

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean:

11:30 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

San Andres

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean

10:00 (erdaraz)
11:00 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

Santa Teresa

Larunbatean


19:00 (elebiduna)

Igandean

10:30 (erdaraz)
11:30 eta San Isidron (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

Urkuluko uraren maila

%90,9



Distantziak

Arrasate									
121	Baiona								
690	579	Bartzelona							
57	170	620	Bilbo						
1.159	1.038	2.883	1.207	Brusela					
72	50	529	119	1.088	Donostia				
40	180	530	66	1.206	118	Gasteiz			
107	120	437	159	1.180	92	93	Iruñea		
391	519	621	395	1.556	469	351	407	Madril	
864	743	1.113	911	296	792	910	884	1.260	Paris



MULTIOPTICAS



MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Juan Carlos Guerra. 1 - Tel. 943 792995 - ARRASATE

10

ostirala

■ ZINEA

Mensaka, Alai zinemana, 22:00etan.

■ IPUIN EROTIKOAK

Oihulari Klown taldeak ipuin erotikoen saioa eskainiko du gaztetxean, gaueko 22:00etan. Saioa gaztetxeak antolatutako Sexualitatearen Astearen barruan emango da.

■ KALE ANTZERKIA

Alo Europa antzezlan eskainiko du *Markeliñe* antzerki taldeak, herriko plazan, gaueko 22:30etatik aurrera.

■ ALMENGO BERTSO ESKOLA

Kalean da dagoeneko Bertsolari aldizkariaren uda honetako alea, goitik behera Almengo Bertso Eskolari eskainia. Hemen duzue, argazki ederrez hornitua, Patxi Goikoleak, Xanti Iparragirrek eta Joanito Akixuk sortutako eskolaren historia.



11

larunbata

■ ZINEA

El final de la violencia, Alai zinemana, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ JOKOAK ETA KONTZERTUA

Sexualitatearen Astea dela eta, joko dinamikoak antolatutako gaztetxean, arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Gauean, berriz, *Hot Dogs* rock talde urretxuarraren emanaldia izango da. Emanaldia 22:00etan hasiko da.

■ ARRANTZA LEHIAKETA

Arrantza lehiaketa antolatutako Aramaion. Arratsaldeko 15:00etan hasiko da. Sari banaketa, 20:00etan.

12

igandea

■ ZINEA

El final de la violencia, Alai zinemana, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ JOKOAK ETA ANTZERKIA

Sexualitatearen Astearekin amaitzeko, joko dinamikoak egingo dituzte 16:00etan gaztetxean. 20:00etan, berriz, *La Patro* antzerki taldeak *Ereccion y orgasmo* antzezlan aurkeztuko du.

■ BIZIKLETA IBILALDIA

"Debako Padura Salba Dezagun" lelopean, bizikleta ibilaldia antolatutako Deba Bailarako Gazte Asanbladak, Martinete Taldeak, Eguzkik eta Ekik. Irteera goizeko 10:00etan izango da, portaloitik.

■ SAN KRISTOBAL JAIA

Aramaion San Kristobal jaia ospatuko dute. 12:00etan meza izango da San Kristobal ermitan, 13:00etan Aramaio Lagun Arte dantza taldearen saioa eta Vermouth dantza, Enebada taldearekin. 17:30etan hasi eta iluntzera arte, berriz, Enebada taldearen erromeria izango da. Bolo txapelketa ere ordu berean hasiko da.

13

astelehena

■ ZINEA

El final de la violencia, Alai zinemana, 19:00etan eta 21:30etan.

14

asteartea

■ ZINEA

El final de la violencia, Alai zinemana, 19:00etan eta 21:30etan.

■ ARRASATE ARGAZKIETAN

Iturbide egoitzan, Arrasateko antzinako argazkiak jarriko dira ikusgai. Argazkiok ostegunera arte egongo dira, Iturbideko lehenengo solairuan.

AB Asesores-ek zuretzat aukeratu ditu...

munduko inbertsio fondorik onenak... fondo bakar batean

AB Fondos RV FIM

Dei iezaguzu 943 76 54 35 telefonora eta jakinaraziko dizugu.

Gutxieneko inbertsioa: 100.000 pta.

AB ASESORES

Ondo inbertitzea denon esku dago

Santalaiz, 6

S. Lorenzo Industrialdea

Tel: 943 76 54 35

2570 BERGARA

http://www.abasesores.es

15 asteazkena

16 osteguna

■ IRLANDA MINTZAGAI

Maite Ubidiak eta Joxe Petrikorenak Irlandari buruzko hitzaldia eskainiko dute Monterronen, arratsaldeko 19:00etan.

■ ZINEA

Trainspotting filma eskainiko da Monterron parkean, gaueko 22:30etan. Sarrera 400 pta. kostako da (Gazte txartelarekin, berriz, 350).

■ JOKIN ZAITEGI ITZULPEN SARIA

Jokin Zaitegi XII. Itzulpen Laburren sariaren deialdia kaleratu du AEDK. Itzulpingintza sustatzeko asmoz egiten den sariketa honetan, gaia librea izango da eta munduko edozein hizkuntzatatiki itzultitako idazlanak aurkeztu ahal izango dira. Itzulpenak urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira, AEDn.

■ I. KOMIKI EZ SEXISTEN LEHIAKETA

Astelehenean amaituko da Arrasateko Udalak antolatutako I. Komiki Ez Sexisten lehiaketan parte hartzeko epea. 230.000 pta. daude jokoan. Lanak, udaletxean aurkeztu beharko dira.

■ ARGAZKI ERAKUSKETA

Jon Ruiz de Zarate argazkilaria *Zerrajería* argazki bilduma dago ikusgai Mondragon Hotelean. Argazkiok uztailaren 19ra arte ikusi ahal izango dira.

■ ANAITASUN AFARIA

Nafarroa Etorbideko auzokideek anaitasun afaria egingo dute larunbatean. Afarira joan nahi duten guztiak *Buenuena* tabernan eman dezakete izena.

■ 1948AN JAIOTAKOAK

Larunbatean bazkaria egingo dute aurten 50 urte betetzen dituztenek. Eguerdian meza izango dute parrokian eta ondoren, Monterronen argazki ofiziala aterako dute. Bazkaria, 14:30etan izango da Mondragon hotelean. Bazkalostean, dantzaldia, Gardoki soinu-jolearekin.

■ OPORRAK BIZIKLETAN

Debagunek "Itsasotik Itsasora" gazteei zuzendutako bizikleta ibilaldia antolatu du abuzturako. Gironaraino trenez joango dira. Handik Hondarribiraino bizikletaz itzuliko dira. Berri gehiago AEDn izango duzue.

EROSKI BIDAIAK EROSKI BIDAIAK

Hau bezalako preziorik ez duzu ikusiko beste inon

MALLORCA

Uztailean. 8 egun. Hotel ***
Pentsio Osoa.
Hegazkina Bilbotik.
Prezioa pertsona bakoitzeko

54.900 PTA. tik HASITA

1^a Eskala

ViAJES EROSKI BIDAIAK

Prezio Onak baino gehiago

ZURE ERRESERBA EKAINAREN 30a BAINO LEHEN EGITEAGATIK Travel Clubeko 500 puntu "estra"

3 hilabetean ordain dezakezu Datorez inoan geroztik ER. 500

EROSKI BIDAIAK EROSKI BIDAIAK EROSKI BIDAIAK EROSKI BIDAIAK

Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 70

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiraletan
5etatik 8etara.
Tel.: 943 79 26 99

beinke

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAL, 3
Tel.: 943 79 87 74
ARRASATE

USTEAK USTE

Arko autonomia da

Oraindik badira zenbait herritar Arrasate Press eta ATB udalarenak direla uste dutenak. Aurrekoan aspaldi ikusi gabeko auzo batek esan zidan: "hori udaletxearena dok, ez tok?". Bada, ez.

Arrasate Press eta ATB ez dira Arrasateko Udalarenak, Arrasate Komunikabideak elkartearenak baizik. Egia da udalak majo laguntzen duela diruz (Arkoren aurrekontu-aren erdia), herriko beste hainbat jarduera laguntzen dituen moduan. Hala ere, Arko autonomia da. Udalak ez du hemen agintzen.

Egia esatera, Arrasateko kasu ereduagarria da, zeren aldizkaria eta telebista sortu zirenetik izan dira autonomoak. (Euskal Herriko zenbat herritan gertatzen da hori?). Eta horrela izaten segitzen dute. Beti izango da norbait, haizeak bere alde jotzen ez duenean, haserretu egin daitekeena gurekin, baina tira.

Meritua gurea bezain handia lehengo eta oraingo alkateena ere bada, gure autonomia babestu dutelako.

Joxe Aranzabal

Yukumorekin harremanetan

Amaia Pavon*

Oso esperientzia hunkigarria benetan, pasa den urtarriletik aurrera gertatu zaiguna. Gu, Arrasateko neska-mutil batzuk gara. San Frantzisko Xabier Ikastolan ikasten dugu, DBHko 2. mailan zehazki. Aurretik aipatu-tako esperientzia honela hasi zen.

Urtarrilaren erdialdean Harreman taldearen bitartez (Gobernuz Kanpoko Erakundea da hau) Ana Molins deituriko misiolari valentziarra gure ikastolara etorri zitzaigun. Yucumo herrian, (Bolivian) 35 urtez laguntzaile moduan dagoen eskola bateko zuzendaria da eta hango bizimodu eta kulturari buruzko hitzaldi interesgarria eman zigun. Bukaeran, beste kultura bateko jendea ezagutzeko irrikitan, harremanetan jarri ginen gure adineko neska-mutilekin, eskutitzen bidez. Eta hara non gure ezustea, haien erantzunak jasotzerakoan, beren eskolari San

Frantzisko Xabier izena jarri ziotenean.

Dena den, gure gutunen erantzunak jaso aurretik, beste proiekturen bat aurrera eramatea pentsatuta geneukan. Mailakideekin hitzegin ondoren, bi proiektu hasi genituen: diru bilketa eta material bilketa.

Lehen proiektuari buruz gutxi esan dezakegu; Ikastolako DBHko 2. mailako gela guztietan, hileroko itsulapiko bat pasatu izan dugu, dirua batzeko. Guztira 82.000 pta. inguru jaso ditugu urtarriletik ekainera bitartean.

Bigarren proiektua abian jartzea zailagoa izan zen. Lehenik eta behin, Bolivia-

rekiko elkartasunari buruzko hainbat hormirudi egin genituen, Ikastola osoko geletan jartzeko. Haiekin batera, hitzaldi motz batzuk prestatu genituen, ikasleen partaidetza pizteko. Hiru asteren epean, hogeita lau kaxa betetzeko haina eskola material batu genuen LHko lehenengo mailatik DBHko bigarren maila bitartean dauden ikasleekin.

Esan beharra dago ikasleen partaidetza bikaina izan dela eta haien laguntzaz bete ditugula kaxa horiek. Orain Yukumora bidean egongo dira Harreman taldearen laguntzarekin, eta eskerrak eman nahi dizkiegu gure ilusioa betetzen laguntzeko egin duten guztiagatik. Eskerrak baita, proiektu honen inguruan lan egiten duten irakasle eta pertsona guztiei ere. Ez dakigu hango ikasleek eta guk inoiz elkar ikusiko ote dugun, baina guretzat aski izan da haiekin harremanetan jartzea. Aurrerantzean ere, horretan jarraituko dugu gutunen bitartez, oso lagun onak egin baititugu.

DBHko bigarren mailako ikasle guztien partetik, esker mila.

* Amaia Pavon
Jone Lopez
Ane Irazabal
SFX Ikastolako ikasleak



Erdiko kale. 79 19 37

I
L
E
A

Ferreries. 943 79 87 62

OSORIK
PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

GoiHata S.L.
「日本語」

Japoniera, ingelesa, euskara, eta hizkuntza guztiak itzultzen ditugu

Alfonso X Jakintsua, 1 ARRASATE
Tel.: 943 - 79 25 75
Faxa: 943 - 77 13 90

ARETXABALETAKO

1 Gizakia Helburu elkartearen jaia

Joan den ostiralean, drogen legez kanpoko salmenta eta erabilera desegokiaren kontrako nazioarteko eguna ospatzen zela eta, drogaren arazoa bizi izan duten Deba bailarako senideek jaia egin zuten. Jende dexentek hartu zuen parte ostiral arratsaldeko ekin-tzetan. Ikusgarriena izan zen drogaren arazoa kaleratzeko asmoz, senideek herritik zehar egin zuten kalejira. Hezkuntza eta alde zurretiko lana aldarrikatu zuten senideek.

BERGARA

2 Udal agiritegiak Interneten

Irargik, Eusko Jaurlaritzako Ondare Dokumentalaren Zentruak, *Badator* datu basean sartu ditu Bergarako eta Oñatiko udal agiritegiak. Interneten bitartez, datu base honetan sartu eta agiritegiak informazioa jaso daiteke. Euskal Herriko datu base handiena den honetan, beraz, Bergarako Udalaren eta Zabala etxe-ko agiritegiak eta Oñatiko Udalarenak aurki daitezke hemen-dik aurrera. Helbidea honako



hau da: www.irargi.org.

ESKORIATZAKO

3 Amuskaren irteera

Amuskak, Eskoriatzako emakumeen elkarteak, irteera bat

antolatu du Bilbora Guggenheim museoa bisitatzeko. Ibilaldia uztailaren 18an, larunbata, egingo dute, museoan Txinari buruzko erakusketa zabalduko dela aprobetxatuz. Goizean museora eta arratsaldean Bilboko ingu-

ruak ezagutzeko parada ere izango da.

ANTZUOLAKO

4 Musikaz betetako jaia

Ostegunean, hilak 16, hasiko dira Antzuolako jaia. Egitaraua musika emanaldiez beteta dator aurren. Ostegunean Triki ta ke taldea arituko da. Ostiralean Zabaleta Band-ekin erromeria eta txosnetan rock kontzertua. Larunbatean mariatxiak eta igandean Debako musika bandaren emanaldiak.

OÑATIKO

5 Jaien iragarpena

Oñatiko jaien egitarauak irudi bat behar du. Udaleko Kultura batzordeak lehiaketa antolatu du, egitarauaren azalean joango den irudia aukeratzeko. Teknika eta gaia libreak izango dira, baina derrigorrezkoa da *Oñatiko Jaixak 98* testua agertzea. Lanak hil honetako 20a baino lehen aurkeztu beharko dira Oñatiko Turismo bulegoan. Bi sari emango dira. Lan onenari 40.000 pta eta bigarrenari 20.000 pta.

Oporrak aire girotuarekin!



OPEL

ZATOZ TAKOLORA!

TAKOLO AUTOAK

Araba etorbidea, 3
(ESKATU pabilioia)
ARRASATE
Tel.: 943 79 05 86

MCC eta ASLEren arteko elkarlan hitzarmena

MCC eta ASLE, Euskal Herriko Elkarte Laboralen Batasunak, elkarlan hitzarmena sinatu zuten asteazkenean. Bi elkarteetako lehendakariak historikotzat jo zuten hitzarmena, onuragarria izango delakoan. Gainera, eta Antonio Cancelo MCCko lehendakariak adierazi zuenez, "kontuan izan behar da 1996an kooperatibek eta elkarte anonimok Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Produktu Gordinaren %5,3 sortu zutela". Hitzarmenaren ekitaldian, Jabier Retegi Industria sailburua eta Sabin Intxaurre Lan sailburu berria ere izan ziren. Hitzarmen ekitaldia izan zen sailburu berriaren lehengo ekitaldi ofiziala. Hori dela eta, aurreko sailburuak egindako lana txalotzeko aprobetxatu zuen. Retegirentzat "akordioak gure industriaren aldaketa estrukturala lortzeko behar diren ekimenak aurrizkusten ditu".

Aurtengo auzolandegiek Lezetxiki garbituko dute

Gipuzkoako 40 bat gaztek parte hartuko dute uztailaren zehar Arrasateko Udalak Lezetxiki koba garbitzeko antolatu duen auzolandegian. Lanak bi txandatan egingo dira. Lehena joan den astelehenean hasi zen, 23 gazterekin. Juan Antonio Barriocanal Gazteria batzordeburuak egin zien ongi etorria Arrasateko udaletxean. Gazte hauek uztailaren 19ra arte egingo dute lan. Ondoren auzolandegien bigarren txanda etorriko da.

Aurtengo auzolandegi hau aurrera ateratzeko, Arrasateko Udalak Kutxa Fundazioaren laguntza izan du. Baita Aranzadi elkartearen eskarmentua ere. Helburua da Lezetxikiko inguruak txukuntzea. Izan ere, azken urtetan oso lagata egon dira eta nahiko egoera txarrean. On Jose Migel Barandiaranek hantxe aurkitu zuen orain 75.000 urte bizi izan zen emakume baten hezurra.



Auzolandegian parte hartuko duten lehen txandako gazteak.

TXUKUNTZE LANAK ETA INDUSKETAK

Gazteek goizeko 09:00etatik arratsaldeko 13:30etara egingo dute lan, inguruko sasiak eta bideak garbitzen, panelak jartzen eta aztarnategiaren gainean estalki bat jartzen. Arratsaldeetan hainbat lantegi izango dituzte, arkeologia, karstologia, etnografia, geologia, entomologia eta astronomia lantzeko. Asteburuetan, berriz, irteerak eta txangoak egingo dituzte, mendiz eta itsaso: San

Adriango aterpetxera, Aketegira eta eskalada batetik eta Donostiatik Pasaia Donibanera bestetik. Hondarribian ere piraguismo egin ahal izango dute.

Alvaro Arrizabalaga Aranzadi elkarteko kide eta EHUKo irakaslea denak talde bat zuzenduko du, Lezetxikin arkeologia indusketak egingo dituena. Gazte gipuzkoarrek, beraz, —tartean Jon Etxabe garagartzarrak— aukera izango dute haien lana gertutik jarraitzeko.

LEBER

GABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosien bitarteko aholkularitza.
- Area ezberdinen errefortzua-berreskurapena (hizkuntza, arazoiketa...)
- Eskolako edozein zailtasunetarako laguntza.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Orduetgia: 15:30etatik 19:30etara.

Basabe industrialdea
ARETXABAETA • Tel.: 943 79 56 98

LAN ESKAINTZAK

Arrasateko Udalak hautaketa prozesu hauek deitu ditu:

- Aukera berdintasunerako agentea (Emakume Saileko teknikaria)
- AOI eta Estazionalakuetako Zaintzaileen lan-poltsa

Oinarriak: Udaletxean jaso daitezke.

Izena aurkezteko epea: uztailaren 22a, berau bane.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■

astea bi hitzetan

■ San Clemente proiektua

Harreman taldeak Kolonbiako Guática herrian garatu den proiektuaren berri eman zuen asteartean. Proiektua azken fasean sartu da. Harreman eta Hiruatx taldeek jasotako diruari esker, hango baserriarren produktuak eraldatu eta merkaturatzeko hainbat lantegi zabaldu baitira.

■ Mankomunitatearen erantzuna

Mankomunitatearen zuzendaritzak adierazi duenez, dagoen lan bakarra bajak eta oportetarako baimenak

betetzekoa da. Horretarako Juntak eta enpresa batzordeak (CCOO, UGT eta LABeko ordezkariekin) lan poltsa sistema jartzea erabaki zuten. Bi langileen nahia, lan poltsako langabetuen aurretik jartzea alegia, ez da bidezkoa mankomunitatearen esanetan.


■ Jokin Zaitegi lehiaketa

AEDk itzulpen laburren sari-ketarako deialdia kaleratu du. Aurten, gaztelaniatik itzulitako idazlanak ere aurkeztu ahal izango dira. Idazlanak urriaren 31 baino lehen utzi beharko dira AEDren egoitzan. Gaia

librea izango da, baina testuak gutxienez 15 orrialdeko luzera izan behar du. Lehen saria 200.000 pta.koa izango da eta bigarrena 100.000koa.

■ Xabier Zubizarreta berriz ere auziperatua

Xabier Zubizarreta, Arrasateko alkate ohia, joan den ostiralean aurkeztu behar zen Euskadiko Auzitegi Gorenean, Bilbon, Defentsa Ministerioak haren kontra jarritako auzi batean, baina ez zen joan. Oraingo auzi hau jarri diote 96an bidali ez zuelako Arrasateko soldadugaien zerrrenda.



AHT-REN AURKAKO ARGAZKI ERAKUSKETA

Jende dexentek bisitatu du Abiadura Handiko Trenaren kontrako Asanbladak joan den astean jarritako erakusketa. Orokorrean gazteak eta baserriarrak gerturatu ziren argibide eske.

“

Euskara dexente erabiltzen da (Fagorren), langileen arteko komunikazioa euskaraz egiten da askotan eta barruko komunikazioak euskaraz zein gazteleraz egiten dira. Kartelak, indikadoreak eta abarrak ere bi hizkuntzetan daude. Batzarrak euskaraz egitea nekezagoa gertatzen zen, beti dagoelako euskaraz egiten ez duen norbait. Dena den, nik uste hitzarmen honekin hori piskat apurtzeko aukera izango dugula. Plan serioa da (Euskararen Erabilera Bultzatzeko Hitzarmena) eta euskararen erabilerari bultzada emateko itxaropena daukagu. Noraino heldu gure eskuetan izango da, bazkide guztion eskuetan”.

JABIER GANTXEGI

Fagor-eko presidenteordea



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA



DOCKERS®
pants by
Levi Strauss & Co.

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



SAN FERMINEK ELKARTUTA



San Fermin egun batean, orain 25 urte, ezkondu ziren Joserra Elorza eta Margari Gorrotxategi. Asteartean sekulako ospakizuna izan zuten Arantzazun urteurrena zela eta. Senideek ezusteko ugari prestatu zituzten. Hasteko, gonbidatu guztiak zapi gorria lepoan agertu ziren. Hortik aurrera... San Fermin giroko jaia bihurtu zen urteurrena, zezen eta toreatzaile eta guzti. Hauek bai egun egokia aukeratu ezkontzeko!

ERROMERIA MOTZAGOA

Igandean ospatu zuten Arrasateko andaluziarrek Rocioa, urtero legez. Dena den, oraingoan egon zen aldaketarik. Alde batetik, Udalarak igo beharrean, Eroski ondoko parkean egin zen erromeria. Bestetik, amabirjinak artzain arropa berriak eraman zituen soinean. Hala ere, eguraldiak lagun, ez zen falta izan andaluziarren kantu eta umore onik.



UGARTE


Industria
hornidurak

Arrasate pasealekua
Tel.: 943-79 83 96 / 943-79 23 00
Faxa: 943-793412

ARRASATE HOTELA



Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16
ARRASATE



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



JARDUNALDI EXTREMADURARRAK

Euskadin bizi diren extremadurarrak topagune berezia izan zuten ekaina bukaeran. Jardunaldi Extremaduraren XV. edizioari bukaera emateko, 3.000 lagun inguru bildu ziren Dima herri

bizkaitarrean. Arrasateko elkartekoez ere ez zuten jaia galdu nahi izan. Argazkian denak ez badaude ere, ordezkari za zabala izan zuten Corazon de Encinak, 300 bat kide joan baitziren.

ZORIONAK, GARAZI!

Garazi Barberanek merezitako saria eraman zuen etxera, haur eguneko ekitaldi guztietan hartu baitzuen parte. Garazi neska alaia eta partehartzailea dela erakutsi zuen. Ze bero ATBn saioan Mekak oparitutako Excalestrik-a tokatu zitzaion. Ainhoa, Garaziren ahizpak, harridura aurpegiaz begiratzen dio saria jasotzerako orduan.

KOADRILAREN PARTETIK... ZORIONAK!

Silviak eta Jose Ramonek euren bizitzak elkartzeko erabakia hartu dute eta datorren uztailaren 18an Bedoñan ezkonduko dira. Ezkonbidaian Greziara joango

dira, baina aurretik familia eta lagunekin bete-beharko dute. Jaia Marisan izango da. Lagunek, aldeztatik zorionak eman nahi dizkiete lerro hauen bitartez.



BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

GORKA ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

Monte taberna

Maalako arrabala, 11
Tel.: 943 79 20 56

Alzheimer gaisotara

Arrasaten orain dela hiru urte eta piku eratu zen Alzheimer gaitzak jotako senideen taldea. Talde hau Gipuzkoako AFAGI elkarteak dituen azpitalde bat besterik ez da, gaitza uste baino hedatuago baitago. Alzheimer jotako senitartekoek ondo baino hobeto dakite zein lagungarri gertatzen diren talde hauek. Izan ere, oraindik gaur egun ezer gutxi ezagutzen baita gaixotasunaz eta bere osasunbidez.

“**H**asieratan izugarriko ezintasuna sentitzen duzu.

Ez dakizu nola eraman gaixoa. Haserretu egiten zara, bera haserretzen da. Ez dakizu nora jo...”, esaten du Juana Mari Arregik. Juana Marik etxean izan zuen ama Alzheimerrek jota, orain bi urte hil zitzaion arte. Gauregun, oraindik ere joaten da AFAGIko taldearen baztarretara. “Taldean sartzeak izugarri laguntzen dizu, bai gaixotasuna zer den ulertzen, bai zure tentsioak askatzen”.

Arrasateko senideak, hamabost bat inguru, hilean bi aldiz elkartzen dira eguneko zentruan. Elkarri ematen diote laguntza, bakoitzaren kasua azalduz. “Gaixo guztiak ez dira berdinak. Batzuk oso ondo eramaten dira, beste batzuk, berriz, oso gogorak, oldarkorak dira... Baina beti izaten dira ezaugarri komunak—esaten du Juana

Marik—. Bakoitzaren espezialitateak beste bati balio diezaiokete arazoari aurre egiteko”.

OROIMENA GALTzea

Alzheimer gaitza dutenei burmuineko neuronak endekatzen zaizkie, zaharkitu. Endekatze prozesua luzea da eta gaixoak epe jakin batzuk pasatzen ditu. Hasieran, momentuko gauzak ahazten ditu. Gero, duela gutxi gertaturiko kontuen oroimena galduko du. Gaixotasuna txarrera joaten da, arazo fisiko bihurtu arte. “Orain dela hiru hilabete arte, nire amaginarrebak berak hamasei urte zitueneko garaiak gogoratzen zituen bakarrik—dio Edurne Etxabek—. Orain guztiz ahaztu ditu oroimen apurrak. Bizitzan atzerantz joango balitz moduan da”.

Lehenengo etapan oso zaila da goixotasuna antzematea. “Hasieran uste duzu maniak direla. Gainera, aldi onak txarrekin tartekatzen dituzte. Konturatzen zarenerako, urteak pasa daitezke”.

Gaixoa, batez ere lehenengo aldi, konturatzen da hainbat gauzatan mugatuta dagoela, baina ez du familiar-tekoengana jotzen. Normalean baztertu egiten du bere burua. Lagun taldeak zein familiagandik urruntzen da, eta horrek beheraldiak sortarazten dizkio. “Oso gogorra egiten zaie gaixorik daudela onartzea. Baina txarragoa izaten da familiak ez duenean onartzen. Batzuek izkutatu egiten dute gaixoa. Badirudi oraindik ere



buruko gaixotasunak *madariatuak* daudela”.


AHATETXOAREN SINDROMEA

Alzheimerrek ez du sendabiderik, oraingoz. Senideak jakitun egon behar dira gaixotasunaz, zaila izaten baita gaixoen erreakzioetara moldatzea. Familiak gaizki pasa lezake kasu askotan, baina bere laguntza beharrezkoa da. “Segurtasuna ematen dien zenbait gauza eskatzen dute. Erreakzio batzuk benetan nekagarriak dira. Adibidez, ahartetxoaren

sindromea deritzona. Batzuk, ahartetxoak bezala, beti senide baten atzetik ibiltzen dira leku guztietan”. Oso lagungarria da lehen aldi horretan AFAGIko talde batean sartzea, orduan pasatzen dira eta, momenturik txarrenak. “Jende asko berandu etortzen da, egoera txarrak behartuta. Ordurako hainbat familia deseginik daude, tentsioa ezin eramanik”.

Gainera, onena da ingurukoei eta auzolagunei gaixorik dagoela esatea, horrela hobeto tratatuko dituzte eta.

munari aurre egiten



ZENTRU PSIKOGERIATRIKOAK

Iñaki Okinak ama Aita Mennin du ospitaleratuta eta Benjamin Arcek Uribeko zentru psikogeriatrikora eramaten du egunero emaztea. "Nire emaztea izugarri pozik joaten da zentzurra. Lagunak ditu han, eta eskulanak eta hainbat ekintza egiten dituela ikusiz, hobeto sentitzen da", esan du Benjaminek. Iñakirentzat asko aurreratu da gaixo hauei eskainita-

ko zerbitzuari dagokionez: "Aita Menni ospitaleak egotza bat dirudi. Eguneko zentruak euren ahalmenak lantzeko terapiak erabiltzen ditu. Gainera familiartekoak berdin-berdin egon gaitezke eurekin. Horrez gain, guri arnasa hartzen uzten digu". Zentrua garrantzi handikoa da senideentzat, psikikoki lasaitu egiten direlako eta baita lana ez uztea ahalbidetzen dielako.

Oraindik, tamalez, jende askok ez du begi onez ikusten horrelako zerbitzuak erabiltzea, gaixoa *abandonatzen* delakoan edo. Ezjakinaren ondorioz, galdu egiten dituzte gaixoek eta eurek jaso ditzaketan onurak. Jakin dezatela behintzat, AFAGIko taldearen atea zabalik daudela laguntza behar duten guztientzat.

Marian Porcel

Eguneko Zentru Psikogeriatrikoa

Eguneko Zentru Psikogeriatrikoa Uribe Auzoan dago eta Aita Menni ospitalak zuzentzen du. Datorren urrian urtebete egingo du. Zentruan gaiberritze fisiko eta mentala behar duten nagusiei laguntza espezializatua eta banan-banakoa ematen zaie, familiartekoei arnasa hartzeko parada ezin hobea eskaintzen zaien biratean. Urtebete egin baino lehen, ez du lekurik gaixo gehiago hartzeko. Jendea, hortaz, sartzeko zain dago. Zerrajera inguruetan udalak agindutako leku handiago baten esperoan daude.

Ze alor lantzen dira zentru psikogeriatrikoan?

- Gaiberritzea: gaixoen ahalmenak lantzen dira, bereziki okerrera joateko joera dutenak, hala nola, oroimena, arreta, e.a.
- Osasun miaketa: asistentzia eta buruko osasun zentruarekin bat datorren jarraipen medikua ziurtatzen da.
- Laguntza familiaria: familian sor daitezkeen kezka, arazo eta gatazkak konpontzen ahalegintzen dira.

Zein da zentruko lan ordutegia?

Goizeko 09:00etatik arratsaldeko 18:00tara. Beraz, gosaria, bazkaria eta askariarekin osatzen dira egunean zehar egindako ekintza guztiak. Familiaren egoera kontuan hartuta, egonaldi behin behinekoak egitea ere posible da.

Zer egin behar da zentru psikogeriatrikoan leku bat eskatzeko?

Eskaera prozedura udal bakoitzeko Gizarte Zerbitzuak bideratzen du. Interesatuak, beraz, bere udaletxeko gizarte laguntzailearengana jo dezake.



Eguneko Zentrua Uribe Auzoan dago gaur egun, baina Zerrajeran zentru handiagoa egin nahi da.

"Familia batzuek ez dute onartzen gaixotasuna. Gogorra bada ere, batzuek izkutatu egiten dute gaixoa"

GOIZANE JAUSORO (TXATXILIPURDIKO IDAZKARIA ETA ADMINISTRATIBOARTEKO KIDEA)

“Txatxilipurdik aldaketa dexe- gu. 93an gazte txokoak eta ludotekak sortu genituen. Eskolaz kanpoko ekintzak ere egiten dira.”

Pausorik pauso bidea eginez. Horretan dabil Txatxilipurdiazken hamar urte hauetan. Herriko haur eta gaztetxoenekin euskararen esparrua lantzen. Makina bat dira elkarre honetan ibili diren mondragoetarrak. Orain, fruituak jasotzen hasteko ordua da. Denbora eta premia berriei erantzun guran, Txatxilipurdik aldaketak izan ditu bere egiturari, baita eskaintzen dituen ekintzetan ere.

— Badira hamar urte Txatxilipurdi lanean dabilela. Zer nolako bidea izan da?

— Ibilbidea luzea izan da eta denetarik ezagutu dugu. Gauzak dexente aldatu dira Txatxilipurdin eta mota guztietako berrikuntzak ditugu gaur egun. Begi bistakoenak egin ditugun zabalkuntzak dira: ekintzak eta adin esparrua zabaldu ditugu. Txatxilipurdiren lan egiteko eran aldaketak egon dira, eta honek

elkarrearen egiturari ere aldaketak ekarri ditu. Orain arte, elkarrearen pisurik astunena bi pertsonaren gain zegoen. Gaur egun Txatxilipurdi sei sailetan dago banatua, eta bakoitzak arduradun bat du. Lana hobeto banatu nahi izan dugu horrela, gauza guztietara hobeto heltzeko.

— Zertarako sortu zen Txatxilipurdi?

— Arrasaten ikusten zen B ereduko haurrek arazoak zituztela euskaraz ongi mintzatzen. Horregatik, AEDk indargarri bat eman nahi zien B ereduko haurrei. Helburu horrekin sortu zen: aisialdiaren bitartez euskararen normalizazioa lortzeko. Aisialdirik egokiena udalekuak iruditu zitzaizkigun. Lehenengo ekintza hori izan zen: asteburuetako eta uztailleko udaleku irekiak.

— Gaur egun zer ekintza antolatzen ditu Txatxilipurdik?

— Udalekuekin aurrera jarraitzen dugu, aldaketa dexente egon badira ere. Horretaz gain, gauza berriak ditu-

gu. 93an gazte txokoak eta ludotekak sortu genituen. Eskolaz kanpoko ekintzak ere egiten dira.

— Zer da ludoteka eta gazte txokoekin lortu nahi dena?


— Egunero zabalik dauden ekintzak dira hauek. Ludotekan 3 urtetik 12 urte bitarteko haurrak dabilza. Jostailuak eta jolasak tresna bezala erabiliz, haurrak euskaraz hezi nahi ditugu. Bi suspertzaile daude haurren beharrak, harremanak eta hizkuntza erlazioak batez ere, asetzeko.

Gazte Txokoa, antzeko zerbait da, baina 12 urtetik gorako gazteen-tzat.

— Adin zailagoa izango da 12 urtetik gorakoa, ezta?

— Bai,

“Euskara bultzatzeaz gain, gazteria partehartzaile eta bizia lortu nahi dugu. Txatxilipurdik bide horretan segituko du lanean”



RAILEA)

...te bizi izan ditu azken aldian”

adin horretan gazteei motibazioa da falta zaiena. Bi gazte txoko ditugu: Musakolan bat eta San Andresen bestea. Gazte txokoetan euskara bultzatzeaz gain, komunikazioa eta autoantolakuntza indartu nahi ditugu. Oso da garrantzitsua gazteek ilusioak izatea, eraginkorrek izatea. Horregatik, eurek zuzentzen dituzte txoko horiek, eta eurak dira ekin-tzak antolatzen dituztenak.

— **Hamar urte lanean eta ehundaka dira Txatxilipurdin ibilitakoak. Igartzen zaie?**

— Adibide garbi bat dago. Gaur egun udalekuetan dabil-

tzan begirale gehienak lehenago Txatxilipurdin ibili izan diren haurrak dira. Horrek zer-baitesan nahi du. Izan ere, euskaraz gain, guk gazteria partehartzailea eta dinamikoa ere lortu nahi dugu, eta horra hor fruitua. AEDren XV. urteurreneko festa ospatu zenean, lanerako jendea behar zela eta, Txatxilipurdin ibilitako gazteen erantzuna oso ona izan zen. Beraz, bai, igartzen zaie.

— **Eta euskarari dago-kionez, badago alderik gazteen artean?**

— Nik uste dut baietz, orain hamar urte baino hobe-

to gaudela, baina oraindik arin da benetako fruituak jasotzeko. Horretarako denbora apur bat itxaron beharko da. Balantze baikorra egiten dugu.

— **Udalekuek aldaketak izan dituzte. Zeintzuk?**

— Orain hamar urte sortu zirenean, udaleku irekiak egin ziren. Gaur egun, aldiz, udaleku hauetaz gain, Arrasatik kanpora antolatzen diren udaleku irekiak ere badaude. Garaion udalekuak egiten dira. Aurten gainera, Orion, Andaluzian eta Nafarroan ere egingo ditugu udalekuak. Udaleku gehiago eta

adin esparru zabalagoa. Orain 2 urtetik 17 urte bitarteko gazteek parte hartzen dute. Oso-tara 600 haur inguru.

— **Datozen urteetarako zer asmo ditu Txatxilipurdik?**

— Orain arte egin den lanaren ahaleginik nagusia euskararen normalkuntzaren inguruan izan da. Datozen urteetan ere, zoritxarrez, horrela izan beharko du. Zoritxarrez diot, zeren zoragarriena izango lizateke euskarak egoera normalizatuan bizitzea eta beste helburu batzuk landu ahal izatea. Baina tira, guk geurean segituko dugu.



Loramendin



*bikini
eta bainujantzi
aukerarik zabalena*



Deba Garaiko gerriko beltz aspaldikoenetakoa

JUAN MANUEL MARTIN

“Karatea zaila da azaltzen. Esan genezake sentimen bat dela”

— Zer izan da gerriko beltza lortzea zuretzat?

— Egindako lanaren emaitza baino ez da. Hamabost urte daramatzat karatea egiten eta oraindik asko daukat ikasteko.

— Espero zenuen gerriko beltza lortzea karatea egiten hasi zinean?

— Bai, baina denbora pasatzen da eta lagatzen joaten zara, nahiz eta gustuko duzun, beste betebeharrak batzuk dituzulako.

— Nola definituko zenuke karatea?

— Zaila da azaltzea. Esan genezake sentimen bat dela. Egiten duzunean, gustura zaude eta egiten ez baduzu, faltan sentitzen duzu.

— Zergatik hasi zinen karatea egiten?

— Betidanik gustatu zait. Hasi nintzenean ez zegoen karate eskolarik Arrasaten eta aldizkariak eta, irakurtzen hasi nintzen. Gero Musakolakon hasi ginen, anaia, nire semea eta hirurok eta orduantxetik egiten dugu karatea.

— Hemendik aurrera zer egiteko asmoa duzu?

— Karatearena eskola bat da; nahi izanez gero, bizitza osoa egin dezakezu ikasten. Neuk segitzeko asmoa dut, baina gerriko gehiago lortuko ditudan edo aurkeztuko naizen gerrikoak lortzeko azterketetara, hori besterik da; ikusi egin behar!



ATLETISMOA Gipuzkoako txapelketak



Datorren asteburuan Arrasate Kirolak Atletiko taldeak Gipuzkoako txapelketa absolutuan izango da. Larunbatean eta igandean Sarabia, Perez, Barrutiabengoa, Sanchez, Fernandez eta Urizar joango dira Donostiara. Anoetako pistetan 100 eta 800 m.tan, pertika jauzian eta mailu jaurtiketan hartuko dute parte.

Jose, Fran eta Txema Galan aita-semeek, bestalde, garaipena lortu zuten Hernanin jokaturako zazpi frogatuko txapelketan. Hirurek lortu zuten garaikurra ekartzea etxera. Jose Galan, aita, lehenengo tokian sailkatu zen beterranoen mailan. Txema eta Fran, berriz, gazte mailan aritu ziren eta lehenengo eta bigarren tokian sailkatu ziren, hurrenez hurren.

TXIRRINDULARITZA Denboraldi amaiera



Lehen urteko haur mailako JMA taldeko txirrindulariek denboraldiko azken lasterketa izan zuten asteburuan. Tolosan jokaturako Almaroz saria izan zen azken lasterketa. JMA taldekoek tropelean egin zuten ibilbide guztia, baina azkenean, bost mondragoetarretatik, Lazkano eta Martinez baka-rrik iritsi ziren helmugara. Bigarren urteko haur mailakoak, berriz, Gipuzkoako taldeko erlojupekoan izan ziren. JMAk hasiera ona izan zuen, baina lasterketaren antolatzaileetako baten aurka jo zuen txirrindularietako batek eta denbora asko galdu zuten. Zikloturistei dagokienez,

bestalde, igandean 101 km.ko irteera egingo dute. Challenge gipuzkoarra, Jose Mari Saisen omenez izango da.

PILOTA Txapelketak asteburuan



Aramaioko eskuz binakako pilota txapelketa Ubera II.ak eta Elorriagak eskuratu zuten. 22 eta 17 egin zuten Ansola eta Goñiren aurka. Pilotari gazteenek partida bikaina egin zuten eta txapela jaztea lortu zuten. Aurretik xisterako partida jokatu zen, Foronda-Endika eta Beiga-Eraeren arteko norgehiagokak interes handia sortu zuen. Azkenean Foronda eta Endikak 30 eta Beiga-Eraek 25 bukatu zen neurketa. Lau pilotariak Mexikoko zestapunta mundialean izango dira.

Bestalde, eta Makatxena-ko eskuz binakako pilota txapelketak aurrera darrai. Aste honetan beterranoen txanda izan da. Txapelketan Osinaga-Uribarren, Zugasti-Arostegi, Etxeberria-Rubia, Domingez-Zubillaga eta Lazkano-Belategi bikote beterranoak ere ari dira. Datorren astean ere 17:00etatik aurrera jokatuko dira partidak.

KARATEA Gerriko beltzak



Saioa Karate taldeko Juan Manuel Martinek eta Manuel Frutosek gerriko beltza lortu zuten joan de astean. Bi mondrago-etarrak Deba Bailarako gerriko beltz zaharrenak izatea lortu dute. Saioa Karate taldean sei gerriko beltz daude eta, Iñaki Muñozek adierazi digunez, datorren urterako beste sei izatea espero dute.

David Espinosa Athleticera

David Espinosa haur mailako futbol jokalaria Athletic Bilbao taldean izango da datorren denboraldian. Orain artean Mondra taldean aritu da 15 urteko gazte hau. Orain dela hilabete jakin zuen Athleticen eskaintza eta ez zuen dudarik izan baietza esateko, bera athletic zalea da eta.

David Espinosa aurrelaria da eta datorren denboraldian Derioko egoitza batean igaroko du urte osoa. Hantxe egingo ditu bere ikasketak, nahiz eta asteburuetan Mondragoera itzuliko den. Espinosaekin batera, beste hiru gipuzkoar ere fitxatu ditu haur mailako Athleticcek.



Mondragoetik joandako hamar igerilariak.

Murtzian ere irabazi egin zuen Anek

Ane Lopez de Bergarak urrezko domina lortu zuen joan den asteburuan, Murtzian jokatu-tako Espainiako Hegats txapelketan. Mondragoetarrak, ur gaineko 1.500 m.ko lasterketan lortu zuen lehen tokia, Espainiako errekorra eskuratuz, gainera. Anek 15'54"tan egin zuen ibilbidea, aurreko errekorra baino 7 segundu gutxiago. Hala ere, horrekin konformatu ez eta beste hiru domina eskuratu zituen. Ur gaineko 200 eta 400 m.ko lasterketan bigarren tokian gelditu zen eta horixe egin zuen 400 m. eskafandran ere.

BESTE EMAITZA BATZUK

Anekin batera, beste bederatziz igerilari joan ziren Espai-

niako txapelketara. Eneritz Jauregi izan zen horietako bat. Bosgarren izan zen junior mailan, 50 m.etan. Ester Gomez ere, juniorretan aritu zen eta seigarren izan zen ur gaineko 800 m.ko proban. Neskek orokorrean emaitza onak izan zituzten Murtziako uretan. Taldeka bosgarren tokia eskuratu zuten 4x100eko proban.

MUTILAK


Mutilak, bestalde, atzerago gelditu ziren sailkapenean. Iban Sanchez esaterako, 36. izan zen 100 m.ko ur gaineko proban. Eta hortxe izan ziren baita ere Alain Gortazar eta Ander Korkuera ere. Haritz Arreitak azaldu zigunez, hasierako asmoak bete dituzte Mur-

tzian; hala ere, lortutako emaitzei esker, Ane Espainiako selekzioaren parte izateko gonbita iritsiko zitzaieela uste zuten.

Mondragoetarrekin batera, Kanariar Uharteak, Zeuta, Bartzelona eta beste hainbat autonomia erkidegotako igerilariak izan ziren Murtzian.

HURRENGO PROBAK

Arrasateko igerilariak beste bi proba izango dituzte hementik gutxira. Jadanik ez dira txapelketak izango, baina bai lasterketa klasikoak. Uztailaren 18an, larunbata, Getaria eta Zarautzen artean jokatzeko den klasikora joango dira. Hurrengo asteburuan, berriz, Ondarri eta Saturraranen artean egiten denean izango dira.



David Espinosa.



AZKARATE MORRAS
PODOLOGIA
KLINIKA

ORDUA ALDEZ AURRETIK
Uribarri etorbidea, 5 behea
ARRASATE • Tel.: 943 79 53 63

TTUKUN

Fotokopiak
Liburu jostekak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a

Ferrerrias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

• Txitxinpe •

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 943 - 79 67 76

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerrias, 11 Tel.: 943 - 77 10 95
ARRASATE

Sexuaz zertxobait ikasten

“Gazteok, sexuaren inguruan dauden tabuetatik bat-batean askatasunera pasatu garela esaten da. Baina gu hor gaudе, aldaketa horren barnean galdu-galdurik. Gure esperientziak horrela dio.”

Ideia hau Arrasateko Gaztetxeko lagun talde batek zera-bilen buruan. Gazteek, sexuaz zalantzak eta galderak dituzte. Nola erantzun, bada? Hori dela eta, Sexualitate Astea antolatzea erabaki zuten gaztetxean.

Ekitaldi dexente egin dira astean zehar, eta egingo dira asteburu honetan, erantzun bila: hitzaldiak, zine teruliak, jolasak, erakusketak...

Antolatzaileek diote “gizarteak behar duelako proposatu dugu sexualitate aste hau. Gazte talde txiki baten ekimena izan da. Egunez-egun gai horren inguruan sufrizten ditugun egoerak aldatu nahian”.

Astelehenetik ostegunera, hainbat gairen inguruko hitzaldiak egin dira arratsaldero: plazerraren bilatzea, antisorgailuak, masturbazioa



Sexualitate Asteari amaiera emateko ekitaldi ugari egingo dira Gaztetxean asteburuan.

eta HIESa, besteak beste.

Eta gualdean, zinearen inguruko lagun hizketaldiak. Primerako filmak aukeratu dituzte gaztetxean. Egoera ezberdinak, maitasun mota eta askotariko harremanak bizitzeko: *Fresa y Chocolate* film kubatarrean istorio homosexual bat kontatzen digute umorez eta goxotasunez. *Kids*, film laburrean, aldiz, gazte amerikarren erretratu gogorra egiten da: sexua, drogak,

HIESa... Asteazkenean ikusi zen *Persiguiendo a Amy*-k, aldiz, bikain islatzen ditu desioa eta ezinezko maitasunak. Azken egunerako izar berezia aukeratu zuten: *La Buena Estrella*. Aurtengo Goya sarien irabazle izan zen Ricardo Francoren film hun-kigarria.

Tamalez, jende gutxi hurbildu da gaztetxera. Tamalez, merezi zutelako antolatu diren ekitaldiak. Gauza interesga-

rriak landu dira, gazte gehien barnean dauden kezkek. Ekitaldi hauek beharrezkoak izaten dira tabuak eta beldurrak apurtu eta naturaltasuna lortzeko.

Oraindik garaiz zabiltzate. Gaur, gaueko 22:00etan astea goxo-goxo amaitzeko, kontu kontalari erotikoak izango dira. Eta asteburuak ere sexu izena izango du. Larunbat eta igandean jokuak, kontzertuak eta antzerkiak egon-



Parques y Jardines

**Parke eta lorategien
sorkuntza.**

**Lorazaintzako
mantenimendua orohar.**

**Landare-birsorkuntza
hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

JON KEPA ZUMALDE, MARKELINE TALDEKO PARTAIDEA

“Hitza erabili gabe, suarekin, argiekin... kontatzen ditugu istorioak”



Markeliñe antzerki taldeak 12 urte daramatza aretoetako nahiz aire zabaleko antzerkia egiten. Duela bi hilabete eskas, euren azken lana estreinatu zuten: *Alò Europa?* Ordudanik txalo ugari jaso dituzte. Gaur haien lanaz gozatzeko aukera izango dugu. Gaueko 22:30etan izango da hitzordua, herriko plazan.

— Zer ekarriko du Markeliñek Arrasatera?

— Arrasateko kaleak izango dira gure agertokia. Antzezleku horretan formato handiko kale antzerkia eskainiko dugu. *Alò Europa?* gure azken lanak Afrikatik hiri handi batera iristen den etorkin baten inguruko gertaerak kontatzen ditu. Hemen aurkitzen duen mundu gogorra eta erasotzailea erakutsi nahi izan dugu.

— Nolako da Markeliñeren antzerkia?

— Ez dugu hitzik erabiltzen. gauzak kontatzeko beste adierazpide batzuk ditugu: mugimendua, piroteknia, soinua...

Ikaraz eta sorpresaz baliatuz, irudi bidez kontatzen dugu istorioa. Nahiz eta oinarri serioagoa izan, gure antzerkiak badu ironia eta umorea. Kontua ez da bakarrik mezu bat azaltzea. Ikusleek, gainera, ongi pasatu behar dute.

— *Alò Europa?* kale antzerkia da, baina ezingo litzateke antzoki batean egin?

— Lan honetan aktoreak sei metro baino gorago dabilta une batzuetan, sua eta piroteknia erabiltzen ditugu eta oso leku zabala behar dugu. Beraz, zaila izango litzateke antzoki batean egitea. Kanean gainera, jende gehiagorengana iristen gara.

— Badirudi zuen antzerkiak baduela antzekotasunik *La Fura Des Bausekin*.

— Bai, jende dextentek esan izan digu *La Fura* txikitxoak garena. Eurak bezala, ez dugu hitzik erabiltzen eta baliabideak ere berdinak dira: sua, argiak, tresnak... Baina gure lanen esangura bestelakoa da. Guk beste istorio batzuk kontatzen ditugu.

— Arrazoi bat gaur jendea zuen antzerkia ikustera joateko?

— Lehena futbola ez ikusteko, eta bigarrena antzerkia zer den ez dakiten horientzat, anima daitezen.

Konturatuko dira antzerkia ez dela telebistan ikusten dena, antzerkia askotarikoa dela. Eta antzerkia ezagutzen dutenek gozatzeko aukera paregabea izango dutela. Ez zarete damutuko.

aste gazte

■ DIRU LAGUNTZAK

• Bergarako Udalak “Justo Garate Arriola” ikerketa beka, soziologiaren arloan ikerketa lanak burutzeko deialdia egin du. Epea: irailak 30.

• Atzerrian 98-99 ikasturtean edo 99ko udan zehar ikasketak burutzeko hainbat dirulaguntzatarako deialdia egin da; Norvegia, Austria, Belgika, Finlandia, Grezia, Hungaria, Errumania, Turkia, Bulgaria, Frantzia, Irlanda, eta beste hainbat lekutarako eskaerak egiteko epe ezberdinak daude.

■ LANA

• Bergarako Aranzadi Ikastolak litzentziadunak behar ditu soinketan, matematikan, fisikan eta ekonomian. Baita ingeniari teknikoa ere.

• Usurbilgo Udarregi Ikastolak ere, hispaniar filologian lizentziatua behar du hurrengo ikasturterako.

• Nafarroako Erkidegorako psikologoak behar dira. Epea: uztailak 15.

• Etxarri Aranatzgo Udalean, kultura koordinatzaile postu bat bete nahi da. Epea: uztailak 17.

• Irungo musika eskolara, musika irakasle bat behar da. Epea: uztailak 18.

• Amurrioko Aresketa Ikastolak, euskara, gaztelania eta frantsesa irakasteko lizentziadunak behar ditu. Epea: uztailak 31.

■ LEHIAKETAK

• Donostia Hiria literatura sariak, ipuina eta antzerkia modalitateetan, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Epea: urriak 31.

Berri gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 77 00 65

“La Fura Des Baus-en antza dugula esaten dute”

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

Etxebizitza salgai Bizkaia etorbidean. Tel.: 943 79 22 92.

3. Errentan emateko

- Bungalow bat alokagai Peñiskolan, uztailaren bigarren hamabostaldian edo irailean. Tel.: 943 77 05 88.

- Aramaioko erdigunean etxebizitza alokatzen da. Jantzia dago eta bero-gailua dauka. Tel.: 943 79 60 88.

- Laredon hondartza ertzean dagoen apartamentua alokatzen dut. Tel.: 943 79 52 80.

- Ikasleei alokatzeko etxebizitza Caceresen. Jantzia dago eta herriaren erdian. Tel.: 943 79 92 90.

- Etxebizitza alokatzen da Erguinen, ikasle edo antzekoei. Merkea. Hiru logela ditu. Tel.: 943 79 66 92.

- Uztaila, abuztua eta irailerako etxebizitza eta bulegoak alokagai ditugu Oropean. Interesatuak deitu 964 31 08 55 telefonora. M^a Angeles Eli-zondo.

4. Errentan hartzeko

- Ikasle batzuek etxebizitza alokatu nahi dugu Arrasaten. Eskertuko genuke telefono honetara deitzea: 943 88 33 98. Jonez galdetu.

- Senar-emazteek etxebizitza alokatu nahi dute Arrasaten. Tel.: 943 79 75 34.

- Etxebizitza hartuko genuke alokairuan Arrasaten. Tel.: 945 45 01 80. Urtzi. Deitu asteburuetan.

- Ikasle batzuek lau logelako etxebizitza hartuko genuke alokairuan. Tel.: 943 55 44 65.

- Ikasle batzuek etxebizitza alokatu genuke Arrasaten. Tel.: 943 79 84 40. Astegunetan deitu. Gorka.

5. Etxe konpartituak

- Lagun bat behar da etxebizitza osatzeko Aramaion. Tel.: 943 77 04 98. Egurdietan.

- Gela baten bila nabil etxe konpartitu batean, Arrasaten. Tel.: 929 96 85 87. Juanjo.

- Gela bat alokatzen da, alde zaharrean. Tel.: 943 79 87 59.

- Donostian etxea osatzeko bi nes-

ETXEBIZITZAK

- Saldu
- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Etxe konpartituak
- Bestelakoak

GARAJEAK

- Saldu
- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

- Saldu

- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Bestelakoak

LANA

- Eskaintzak
- Eskaerak
- Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

- Eskaintzak
- Eskaerak
- Bestelakoak

MOTORRA

- Saldu

- Erosi
- Bestelakoak

DENETARIK

- Saldu
- Erosi
- Trukatu
- Eman
- Hartu
- Galdut
- Aurkitu
- Bestelakoak

HARREMANAK

- Agurrak
- Kontaktuak
- Deialdiak
- Bestelakoak



943 77 05 65

ARRASATE PRESS • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohaineakoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

ka behar dira. Tel.: 943 79 74 03.

- Irailetik aurrera gela bat behar dut Arrasateko etxe batean. Dei egin 943 71 24 00 telefonora (221 luzapeana, David), bulego orduetan.

- Etxebizitza osatzeko bi lagun behar dira Amaran, Donostian. Egoera onean dago. Tel.: 943 79 53 58 / 943 79 27 42.

- Gela bat alokatzen dut Juan Carlos Gerra kaleko 4an, 2. solairuan eskuinean. Tel.: 943 79 68 00. Ilun-ztean deitu.

- Irailetik aurrera etxe bat konpartituko nuke, ikasleekin ahal bada. Tel.: 943 62 59 35. Silvia.

LANA

17. Eskaintzak

- Tabernan zerbitzari lanetan aritzeko neska prest. Tel.: 943 79 68 77. Vanessa.

- Neska arduratsua prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74. Goizetan edo 20:00etatik aurrera.

- Emakume esperientziaduna prest etxeko lanak egiteko eta persona-

gaixoak edo umeak zaintzeko. Tel.: 943 79 11 46.

- Esperientziadun neska prest orduka garbiketarako egiteko (atariak, etxeak, dendak, e.a...). Tel.: 943 79 60 03. Deitu 21:00etatik aurrera.

- Neska tituluduna prest aerobic hezitzaile edota muskulazio begirale gisa lan egiteko. Tel.: 943 79 10 53. Deitu 21:00etatik aurrera

- Lanak ordenagailuz pasatzen dira. Tel.: 943 79 11 54.

18. Eskaerak

- Emakume bat behar dut taberna garbitzeko. Tel.: 943 44 50 95.

- Publizitate saltzailea behar da Jardun elkartearen proiektu berezia bultzatzeko. Bidali curriculumak ekainaren 22a baino lehen, helbide honetara: Jardun elkarte. Kartzela zaharra, Juan Irazabal kalea z/g. 20570 Bergara.

- Ile apaintzailea behar dugu aste-buruetan lan egiteko. Esperientzia eskatzen da. Tel.: 943 77 09 44.

- Pizzeria batek sukaldari laguntzailea behar du asteburuetarako. Tel.: 943 79 11 25.

- Jatetxerako zerbitzaria behar da. Neska, euskalduna eta esperientziaduna. Tel.: 943 79 24 58.

- Sukaldari laguntzailea behar da jatetxerako. Tel.: 943 78 35 26.

- Emakumea behar da umea zaintzeko. Tel.: 943 77 10 62.

- Ume bat zaindu eta etxeko lanak egingo lituzkeen emakumea behar da Aramaioko baserri batean. Tel.: 929 422 314. Deitu 21:30etatik aurrera.

- Neska edo emakumea behar da taberna bateko sukaldean lan egiteko. Tel.: 943 79 00 34.

- Esperientziadun sukaldaria behar da. Arratsaldetan deitu. Tel.: 943 79 00 60.

- Jostun bat behar dugu denda batean lan egiteko. Interesatuak bidali datuak 259 posta kutxatilara.

- Arrasateko gimnasio batek fisioterapeuta bat behar du. Interesatuak bidali curriculumak honako helbidera, uztailaren 17a baino lehen: Pardo Estetika Zentrua (943 79 52 17); Iparagirre Plaza, 4 behea, 20500 Arrasate.

- Neska bat behar da abuztuan ile-apaindegi batean lan egiteko. Esperientzia eskatzen da. Tel.: 943 79 22 59. Lan orduetan deitu.

- Etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko neska bat behar da. Tel.: 943 77 00 80.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

- Neska prest uda partean eskola partikularrek emateko. Tel.: 943 79 81 67.

- Uztailaren eskola trinkoak emango nituzke. Ingeles, ESO eta LOGSEn. Talde txikiak. Ingelesko titulu ofiziala eta esperientziaduna. Tel.: 943 79 56 78.

- Irakasle ikasketetan diplomadunak eskola partikularrek emango lituzke udan. Tel.: 943 79 35 24.

- Udan eskola partikularrek emango nituzke. Matematika, fisika eta kimika. Tel.: 943 79 51 19 / 943 79 81 66. Ane.

- LH, DBH. latin eta ingeleseko eskola partikularrek ematen ditut. Esperientziaduna eta merkea. Tel.: 943 79 47 35.

- 14 urte arteko gazteei matematika eta fisikako eskola partikularrek emateko prest. Tel.: 943 79 81 70.

- Psikologoa eskola laguntza emateko gertu. Tel.: 943 79 86 28.

- Informatikako eskola partikularrak (Pascal, RPG, Clipper, Programazio metodologia, e. a...) ematen dira. Tel.: 943 79 11 54.

- Ingeniaritza Teknikoko 4. mailako ikasle batek matematika eta fisikako eskolak emango lituzke udan. Tel.: 943 79 51 68. Gorka (eguerdian deitu).

21. Eskaerak

- Frantseseko eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 79 63. Deitu arratsalde. Igor.

- Etxean eskola partikularrak hartuko nituzke, BTT 2. mailako elektroteknia, matematika, ingelesa eta gaztelania. Tel.: 943 79 34 53

- Kontabilitateko eskola partikularrak jasoko nituzke. Deitu gaueko 21:30etatik aurrera 943 79 36 83 telefonora. Idoia.

- Txinera ikastea gustatuko litzaidake norbait eskola partikularrak emateko prest balego. Deitu 943 71 50 72 telefonora.

- Euskaraz dakien irakaslea behar

ko nuke irailaren 1etik aurrera, ESOko 1. mailan hasiko den gazte bati eskolak emateko. Tel.: 943 79 06 24 / 943 79 94 52.

- Estatistikako eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 79 12.

- Paleografia eta Diplomatikako eskolak jasoko nituzke uztailan. Tel.: 943 79 94 92. Pilar.

- Kontabilitate eta matematika finantzieroko eskola partikularrak hartuko nituzke uztailan eta abuztuan. Tel.: 943 79 48 99.

MOTORRA

23. Saldu

- Kawasaki Vulkan 800, 93. urtekoa eta gehitutako zerbitzuekin salgai, 600.000 pta.tan (negoziagarriak). Tel.: 943 77 10 30.

- Yamaha TZR-80 motorra salgai. SS-V. Tel.: 943 79 73 54.

- Denda erremolke alemaniarra salgai, egoera onean. Tel.: 943 79 73 04.

DENETARIK

26. Saldu

- Errepideko bizikleta saldu nahi dut. Tel.: 943 79 31 40.

- Maxi-cosia salgai 17.000 pta.tan (hamaka + txasixa = paseorako haur kotxea, aterkia daukan aulkia). Tel.: 943 79 41 31.

- Jamsterra salgai, 200 pta.tan. Tel.: 943 77 17 82.

- Urte bat baino ez duen errepideko bizikleta baten koadroa salgai. Ezaguriak: Tuberia Columbus SLX Pinarillo JJC; urkila zuzena, kolore horia eta 60ko neurrikoa dena. Oso merkea. Tel.: 943 71 42 32. Inigo.

- Trialeko bizikleta salgai. Bikotrial X. clas 219. Tel.: 943 79 93 03.

- Mendiko bizikleta salgai. Zazpi urtera artekoentzat. Merke. Tel.: 943 79 79 53.

- Umeak autoan eramateko aulkia salgai. Tel.: 943 79 79 53.

- Aguakate ekologikoak salgai. Merke. Tel.: 943 77 04 98.

- Errepideko bizikleta erdi berria salgai. 15.000 pta. Tel.: 943 79 60 81.

27. Erosi

- 2m.ko kaja duen erremolkea errosiko nuke. Tel.: 943 73 19 60. Joseba. 21:00etatik 22:00etara.

- Disko singleak eta LPak erosten ditut. Tel.: 943 52 65 77.

31. Galdu

- Arrosa koloreko jaka galdu dut Zaldirretik S. F. Xabier ikastolaraingo bidean. Topatu baduzu, deitu mesedez, 943 79 38 52 telefonora.

- San Joanetan urrezko eta landutako perladun belarritakoa galdu zitzaidan. Aurkitu baduzu, deitu mesedez, 943 79 89 48 telefonora. Sari-tuko da.

- Giltzak galdu ditut Zarugaldetik Santa Agedara bidean. Tel.: 943 77 14 77.

32. Aurkitu

- Etxeko katu bat aurkitu dugu. Beltza da eta lepokoa ere badauka. Tel.: 943 79 25 07.

- AH hizkidun bizkar zorro berde-laranja-more bat aurkitu dugu. Arrasate Press-en galdetu. Arantzazu.

Kalitateak mugarik ez.



ARGI-PLASTIC

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa
Zigorrola, 1 8. Pabeiloia
Tel.: 77 11 30
ARRASATE



San Martin zuten sarrailagileek zaindari nagusia. Azaroaren 11n, zaindariaren egunean, Union Cerrajeran lan egiten zuten sarrailagileek jai hartu eta sekulako bazkaria egiten zuten. 1949ko azaroaren 11n

ere, orduko langileek jai hartu zuten. Taldeko argazki dotorea ateratzeko, Zaldibarreko frontoiaren eskaileretara joan ziren.

Ikusten denez, garai berrien atarian zeuden, emakume dexentek egiten baitzuen lana Cerrajeran. Usadioak aldatze-

az gain, herriak ere bere fisionomia aldatu zuen. Taldearen atzealdean ikusten den etxe zuri handia Mendikutereren etxea zen. Izkinakoa, berriz, Danobat elkartearena. Biak bota zituzten. Gaur egun, Roneoko etxe berriak daude hor. Sarrailagintzak ere, beheran-

tzako bidea hartu zuen. Gaur egun sarrailagile gutxi geratuko da Arrasaten. San Martin bakarrik iraungo ote du!

Argazkia: Martinez.

Berriak: Pedro Urreta



- Inportazioko autoak
- Marka guztiak
- Kalitate-preziorik onenak



- Sarrerarik gabeko finantziazioa
- Mota guztietako autoak

• BOLUMENBAKARRAK • LURROROTAKOAK • FAMILIARRAK

Amillaga, 10 B • BERGARA (ITV ondoan) • Tel./Faxa: 943 76 04 58



futbola • saskibaloia • mendia • atletismoa • etab...

KIROL BAKOITZERAKO ERANTZUN BAT

Kontzezino kalea, 8 • Tel.: 943 79 46 12 • 20500 ARRASATE




ARRASATE

KIROLAK

EZ DAGO EZER
ZEHATZAGORIK
AITA BATEK BERE HAURRA BABESTEIA BAINO



EZ DAGO EZER ZEHATZAGORIK
RENAULT LAGUNA BATEK
AITA BABESTEIA BAINO



MECA TAILERRAK

San Andres auzoa, 8 • Tel.: 943 79 59 99 ARRASATE

Amillaga, 5 • Tel: 943 76 40 68 BERGARA

Laguna 2
ZEHATZA DA



Renault. ehun urtetatik hona ideien motorra



RENAULT